

ARTISTEAK ETA MALKOAK.



TRADUCCION LIBRE DE «PERLAS Y LÁGRIMAS», DE SELGAS.

I.

Mendi-gañetik
Egun-sentiya,
Dator zabaltzen
Poza t' argiya;
Aizea dabill alai
Osto-tartean,
Eta saltoka ura
Makalen itzalean.

Loreak ditu
Zabal orriyak,
Zutik kopeta
Ikusgarrigak,
Eta intzaren
Tanto garbiyak,
¡O! Dirudite koroï eder ta
Dizdizariyak.

II.

Arratsaldea
Bukatutzen da;
Zeruko argiya
Chit itzaltzen da:
Oyuskatzen du aizeak
Osto-tartean,
Negar egiten urak
Arri gañean.

Ichirik daude
Lore-orriyak,
Chit makur bere
Kopet alaiyak;
Eta gañean
Dituzten intz-tantoak
Dirudite penadun
Baten negar-malkoak.

III.

Lore politen orri dizdizariyak
Edertzen dituzten intz-tanto garbiyak,
Dirade lur tristeko zorionen antzean,
Artiste goizaldean,
Malko arratsaldean.

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.

